

## → Helburuak

Hau ikasiko dute ikasleek:

- Haize-errotatxo bat egiten.
- Formaren arabera alde batera ala bestera biratuko dela frogatzen.
- Haizea zer aldetatik iristen zaion, gehiago ala gutxiago biratuko dela frogatzen.

## → Materiak

- Teknologia
- Fisika
- Geometria

## → Trebeziak

- Paperezko modelo simple bat egitea
- Behatzea
- Neurketak egitea

## → Materialak



- Kartoi mehea (15 cm-ko aldekoa)
- Buru-orratz bat
- Ale bat edo botoi txiki bat
- Borragoma bat
- Papera itsasteko itsasgarria (kola zuria)

## → Egitea


- 1 15 cm-ko aldeko kartoi mehean, hurrengo orriko irudia marraztuko dugu.

Erdiko zuloa eta diagonalak marraztuko ditugu. Ez ditugu diagonalak erdiraino marraztu behar.


X batez markatuko dugu izkina bakoitzeko alde bat, irudian bezala.



- 2** Lau diagonalak moztuko ditugu, puntu-lerroetatik, baina kartoi mehearen erdiraino iritsi gabe.



- 3** X batez markatutako lau izkinak eta erdia elkartuko ditugu. Izkinak elkartzen ditugun heinean, kola zuriz itsatsiko ditugu kartoi mehearen erdiari.




- 3 Erdetik zulatuko dugu haize-errotatxoa, buru-orratz batez.
- 4 Haize-errotatxoa lastotxoarekin lotu eta ale bat jarriko dugu bi horien artean, haize-errotatxoa askeago biratzeko.
- 5 Buru-orratzaren puntaz sastadarik ez egiteko, borragoma jarriko dugu lastotxoaren atzealdean, irudian ikus daitekeen bezala.

## → Gehiago Jakiteko

- Nola biratzen da hobeto?

Aurretik edo albotik emango diogu haize errotatxoari. Zer aldetatik biratzen da hobeto?



- Muntaketaren arabera, erlojuaren orratzen noranzkoan biratuko dira haize-errotatxoak, edo aurkakoan. Zein biratzen da noranzko bakoitzean?


Osatu esaldi hauek:

- "a" haize-errotatxoa \_\_\_\_\_ noranzkoan biratzen da.
- "b" haize-errotatxoa \_\_\_\_\_ noranzkoan biratzen da.




- Zenbait hegalduna dituzten haize-errotatxoak egin daitezke. Hona hemen kasu bakoitzean paperak izan behar duen forma, eta ondoren muntaketa nola geratzen den.


Bi hegalduna



Hiru Hegalduna



Sei hegalduna



- Zenbait modelo egin ditzakegu, koadrante bakoitza kolore batez